euskaldunon **Egunkaria**

ASTEARTEA 2002ko abenduaren 24a – XIII. urtea – 3.741. zenbakia – Hego Euskal Herrian: 1 euro. Ipar Euskal Herrian: 0,80 euro

IRAKI ERASOTZEKO ASMOA

## NBEko agentziak hasiak dira gerraren ondorioei aurre egiteko lanean

Persiako Golkoan gerrak izan ditzakeen ondorioei aurre egiteko prestatzen hasi dira NBEko agentziak. Atzo, piloturik gabeko AEBetako hegazkin espioi bat bota zuen Irakek. /20-21

IHESA BAIONAKO POLIZIA-ETXEAN

# Fernandez Iradiren ihesak agerian utzi du Frantziako Poliziaren zaintza lan eskasa

Nicolas Sarkozy Barne ministroak Baionako komisarioa eta bost polizia kargutik kendu ditu

Harridura eta ezin sinetsia nagusitu dira Frantziako eta Espainiako segurtasun arduradunen artean, larunbat arratsean Ibon Fernandez Iradik Baionako polizia-etxetik ihes egin ostean. Hura zaintzeko segurtasun neurriak eskas zirela agerian geratu da. Ziegan zela, haize-berritze hoditik egin zuen ihes Fernandez Iradik. Nicolas Sarkozy Barne ministroak zigor neurriak abiatu ditu Baionako sei poliziaren aurka. /6-7




BOB EDME / AP

**POLIZIA KONTROLAK.** Frantziako Poliziak errepide kontrolak ezarri ditu Baiona inguruan, Fernandez Iradiren atzemateko. Argazkian, frantses polizia auto baten maletatokia miatzen, Baionan.

HEGAZKIN ISTRIPUA

### Gutxienez 46 lagun hil dira Ukrainako hegazkin batek Iranen izandako istripuan /24

HONTZA ZENTROA

### Drogazaleei aterpea ematen hasi dira Bilboko San Anton elizan /13-14

HISTORIOGRAFIA

### Nafarroako «jatorrizko eta benetako» muga politikoak azaldu ditu Tomas Urzainkik

'Navarra, sin fronteras impuestas' liburua kaleratu du Pamielarekin /41

MUSIKA

### Joe Strummer The Clash taldeko burua hil da, bihotzekoak jota /43

**GAURKO EGUNKARIA 0,20 EURO GARESTIAGO.**

Gaurko EGUNKARIA ohi baino 0,20 euro garestiago izango da Hego Euskal Herrian, prentsa saltzaileek Eguberrietako estra jaso dezaten. Ipar Euskal Herrian, berriz, ohiko salneurria izango du: 0,80 euro.

**BIHAR EZ DA EGUNKARIARIK IZANGO**

Bihar Eguberri eguna denez, ez da EGUNKARIArik izango kioskoetan.

ELKARRIZKETA

**OLIVER TODT**
Zientziaren Filosofiako ikertzailea

### «Zertarako aukeratu transgenikoak, kontsumitzaile gisa abantailarik ikusi ezean?» /36




